

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

1.159/2012 FORU AGINDUA, abenduaren 19koa, taldeen bateratze fiskaleko araubideko alta eta haien osaeraren aldaketa jakinarazteko 228 eredua onartzen duena.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen dituen abenduaren 26ko 5/2011 Foru Arauaren bidez, aldatuta geratu zen, Sozietateen gaineko Zergaren eremuan, bateratze fiskaleko araubidean zergapetuta dauden entitateentzat araubide horretako alta eta taldearen osaeraren aldaketa jakinarazteko modua.

Bereziki, Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 77. artikularen 6. apartatuan sartutako aldaketa zela medio, ezarrita geratu zen komunikazio haiek Ogasun eta Finantzetako Departamentuko foru diputatuak ezartzen dituen tokian, moduan eta epeetan egingo zirela.

Horiek horrela, apartatu hura garatzearen, eta, beraz, talde bateratueta entitate nagusiei jakinarazpen horiek egitea ahalbideratzearen, foru agindu honen bidez 228 eredua onartzen da, taldeen bateratze fiskaleko araubideko alta eta haien osaeraren aldaketa jakinaraztekoa.

Horren indarrez, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 228 eredua onartzea.

Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako, taldeen bateratze fiskaleko araubideko alta eta haien osaeraren aldaketa jakinarazteko erabili behar duten 228 eredua onartzen da. Foru agindu honen eranskinean dago 228 eredua.

2. artikulua. 228 eredua aurkezteko betebeharra.

Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 76. artikularen arabera, zergak Gipuzkoako lurralde historikoan ordaintzen dituzten talde bateratueta entitate nagusiek aurkeztu behar dute 228 eredua, honako egoera hauekin:

a) Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 76. artikuluan (6. apartatuko lehen paragrafoan) aurreikusten den alta jakinarazteko bateratze fiskaleko araubidea aukeratzen dutenean.

b) Sozietateen gaineko Zergaren bateratze fiskaleko araubideari jarraituz ordaindu arren, taldea osatzen duten entitateen osaera aldatzen denean, Sozietateen gaineko Zergaren uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 76. artikularen arabera.

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

ORDEN FORAL 1.159/2012, de 19 de diciembre, por la que se aprueba el modelo 228, de comunicación de alta de los grupos en el régimen de consolidación fiscal, así como de la variación de su composición.

Mediante Norma Foral 5/2011, de 26 de diciembre, de modificación del Impuesto Sobre la Renta de las Personas Físicas tendente a la recuperación de la equidad, y de aprobación de otras medidas tributarias, se modificó, en el ámbito del Impuesto sobre Sociedades, la forma de comunicar el alta y la variación de la composición del grupo para las entidades que tributan bajo el régimen de consolidación fiscal.

En particular, con la modificación introducida en el apartado 6 del artículo 77 de la Norma Foral 7/1996, de 4 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, se estableció que las citadas comunicaciones se harían en el lugar, forma y plazos que estableciera el Diputado o Diputada Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Pues bien, con objeto de desarrollar el citado apartado y, por tanto, permitir a las entidades dominantes de los grupos consolidados realizar esas comunicaciones, mediante esta Orden Foral se aprueba el modelo 228, de comunicación de alta de los grupos en el régimen de consolidación fiscal, así como de la variación de su composición.

En su virtud,

DISPONGO

Artículo 1. Aprobación del modelo 228.

Se aprueba el modelo 228, de comunicación de alta de los grupos en el régimen de consolidación fiscal, así como de la variación de su composición, a efectos del Impuesto sobre Sociedades. Este modelo se adjunta como anexo a la presente Orden Foral.

Artículo 2. Obligados a presentar el modelo 228.

Están obligados a presentar el modelo 228 las entidades dominantes de los grupos consolidados que tributan en el Territorio Histórico de Gipuzkoa de acuerdo con lo dispuesto en el apartado 5 del artículo 2 de la Norma Foral 7/1996, de 4 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, en los siguientes supuestos:

a) Cuando opten por el régimen de consolidación fiscal en el Impuesto sobre Sociedades, a efectos de comunicar el alta previsto en el primer párrafo del apartado 6 del artículo 76 de la Norma Foral 7/1996, de 4 de julio, del Impuesto sobre Sociedades.

b) Cuando tributando bajo el régimen de consolidación fiscal en el Impuesto sobre Sociedades, se haya modificado la composición de las entidades que forman el grupo, de acuerdo con lo dispuesto en el segundo párrafo del apartado 6 del artículo 76 de la Norma Foral 7/1996, de 4 de julio, del Impuesto sobre Sociedades.

3. artikulua. 228 eredua aurkezteko moduak.

Telematikoki aurkeztu behar da 228 eredua, eta subjektu pasiboak berak edo haren ordezkari batek aurkez dezake.

Fitxategi bat helaraziz aurkeztu behar da 228 eredua, zergekin lotutako izapideak elektronikoki egiteko betebeharra arautzen duen azaroaren 24ko 1.011/2010 Foru Aginduan xedatutakoari jarraikiz.

4. artikulua. 228 eredua aurkezteko epea.

Hauek dira 228 eredua aurkezteko epeak:

a) Alta jakinarazteko, ondorioak dituen zergaldiaren aurreko lehen zergaldiko azken hilabetean.

b) Talde fiskalaren osaeraren aldaketa jakinarazteko, aldaketa egin eta bi hilabeteko epean.

5. artikulua. 228 eredua aurkezteko tokia.

1. Telematikoki igortzekoak diren fitxategi informatizatuak prestatzeko, Ogasun eta Finantza Departamentuaren web gune ofizialean dagoen laguntza programa erabiliko da; Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa ere eskuratu dezakete programa hori (www.gfaegoitza.net).

Fitxategi elektronikoa igortzeko, laguntza programak berak erraztuko du Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa kokatuta dagoen «Gipuzkoataria» zerbitzu informatikoen atarian sartzea. Behar den orrian behin sartuta, identifikazio sistemak eskatzen dituen datuak beteko dira lehen-lehenik, eta fitxategia bidaliko da gero.

Igorritako fitxategiarekin batera foru agindu honen 6. artikuluan aipatzen den dokumentazioa bidali behar bada, azken hori bide telematikoz aurkeztuko da, bidezko fitxategiak igorritako. Horretarako, dokumentazioa aurkezteko plataforma orokorra erabiliko da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa dagoen «Gipuzkoataria» zerbitzuan sartuta.

Behin fitxategia igorritako, zergadunak aurkeztutako jakinarazpenaren kopia bat inprimatu ahal izango du, non «prozesaketaren zain» esapidea jasoko baita.

2. Geroago, Zerga Administrazioak berari igorritako informazioa eta, hala badagokio, dokumentazioa egiaztatuko ditu, eta honela jokatu du:

a) Jakinarazpena zuzena bada, Administrazioak hori subjektu pasiboaren eskura jarriko du Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa kokatutako «Gipuzkoataria» zerbitzu informatikoen atarian, eta hark inprimatu ahal izango du. Jakinarazpenak ziguil digital bat eramango du, telematikoki aurkeztu izana frogatze aldera.

Jakinarazpena taldearen altari buruzkoa denean, Zerga Administrazioak emandako taldearen zenbakia zehaztuko du, gainera, eta Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduari buruzko ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretuak 47. artikuluan 2. apartatuan aipatutako jakinarazpena burututzat emango da.

Subjektu pasiboari jakinarazpenaren prozesaketaren datuen berri eman eta jakinarazpena haren esku jartze aldera, mezu elektronikoa bat bidaliko zaio hark ereduari adierazten duen posta helbidera.

Artículo 3. Formas de presentación del modelo 228.

El modelo 228 se presentará exclusivamente por vía telemática, y se podrá realizar por parte del propio sujeto pasivo o a través de representante.

La presentación del modelo 228 se realizará a través de la transmisión de fichero, de acuerdo con lo dispuesto en la Orden Foral 1.011/2010, de 24 de noviembre, por la que se regula la obligación de efectuar determinados trámites de carácter tributario por vía electrónica.

Artículo 4. Plazo de presentación del modelo 228.

Los plazos para presentar el modelo 228 serán los siguientes:

a) En caso de la comunicación del alta, dentro del último mes del período impositivo inmediato anterior al que deba surtir efecto.

b) En caso de la comunicación de la variación en la composición del grupo fiscal, dos meses desde que se produzca la variación.

Artículo 5. Lugar de presentación del modelo 228.

1. Los ficheros informatizados a transmitir por vía telemática se confeccionarán utilizando el programa de ayuda que se pondrá a disposición de los obligados tributarios en la página web oficial del Departamento de Hacienda y Finanzas, así como en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en la dirección www.gfaegoitza.net.

Para efectuar la transmisión del fichero electrónico confeccionado, el propio programa de ayuda facilitará el acceso al portal de servicios informáticos «Gipuzkoataria» ubicado en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Una vez en la página correspondiente se cumplimentarán los datos requeridos en función del sistema de identificación para, a continuación, proceder a transmitir el fichero.

Cuando el fichero transmitido deba ser acompañado de la documentación a que se refiere el artículo 6 de la presente Orden Foral, ésta se presentará por vía telemática, mediante la transmisión de los ficheros correspondientes, utilizando para ello la plataforma general de presentación de documentación del portal de servicios telemáticos «Gipuzkoataria», ubicado en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Una vez transmitido el fichero, el contribuyente podrá imprimir una copia de la comunicación presentada, en el que figurará la expresión «pendiente de proceso».

2. Posteriormente, la Administración tributaria procederá a la comprobación de la información transmitida, así como, en su caso, de la documentación presentada y procederá como sigue:

a) En caso de que la comunicación sea correcta, la Administración pondrá la misma a disposición del sujeto pasivo en el portal de servicios informáticos «Gipuzkoataria» ubicado en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y éste la podrá imprimir. La misma contendrá un sello digital acreditativo de la presentación telemática de la comunicación.

Cuando la comunicación se refiera al alta del grupo, la Administración tributaria especificará, además, el número del grupo otorgado, y se considerará realizada la comunicación a que se refiere el apartado 2 del artículo 47 del Decreto Foral 45/1997, de 10 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades.

Para facilitar al sujeto pasivo el conocimiento de la fecha en la que se haya procesado la comunicación y ésta se ponga a su disposición, se le enviará un correo electrónico a la dirección que éste especifique en el modelo.

b) Igorritako informazioa okerra dela edo erroreak dituela uste denean, edo errekeritutako dokumentazioa aurkeztu ez denean, subjektu pasiboari jakinaraziko zaizkio berak aurkeztutako jakinarazpenaren errefusa eta horren arrazoiak, eta 228 ereduaren aurkezpena baliogabea izango da. Jakinarazpen hori idatziz bidaliko zaio, subjektu pasiboak zehaztutako helbidera mezu elektronikoa igorri ere egitea eragotzi gabe. Subjektu pasiboak 228 eredu berri bat aurkeztu beharko du, erroreak konponduta edo berari errekeritutako dokumentazioa aurkeztuta.

6. artikulua. 228 ereduarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak.

Taldeko entitateek bateratze fiskaleko araubidea aukeratzeko erabakien kopia bat aurkeztu behar dute 228 ereduarekin batera.

Hala ere, aipatutako dokumentua ez da eskatuko dagoeneko Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku badago (036 o 60S eredu bidez).

Xedapen iragankorra. Foru agindu hau indarrean jarri ondorengo hilabeteen hasten diren zergaldietan bateratze fiskaleko araubidea lehen aldiz aplikatzen duten entitateek alta jakinarazteko duten epea.

Foru agindu honen 4. artikuluko a) letran xedatutakoa kontuan hartuta ere, 2013ko urtarrilaren 31 arte izango dute alta jakinarazteko aukera foru agindu hau argitaratu ondorengo hilabeteen hasten diren zergaldietan bateratze fiskaleko araubidea lehen aldiz aplikatzen duten talde bateratuetako entitate nagusiek.

Amaierako xedapena. Indarrean jartzea eta ondorioak izatea.

Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean foru agindu hau. Halaber, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera ematen diren alden jakinarazpenetan nahiz indarrean jarri ondoren talde fiskalaren osakeran egiten diren aldaketetan aplikatuko da.

Donostia, 2012ko abenduaren 19a.—Helena Franco Ibarzabal, Ogasun eta Finantza Departamentuko Foru Diputatua.

(10650)

(11870)

b) Cuando se considere que la información transmitida o bien es incorrecta o tiene errores, o bien no se acompaña de la documentación requerida, se comunicará al sujeto pasivo el rechazo de la comunicación presentada y los motivos que lo han ocasionado, y la presentación del modelo 228 será considerada nula. Esta comunicación se hará por escrito, sin perjuicio de que también se realice a través de correo electrónico a la dirección especificada por el sujeto pasivo. El sujeto pasivo deberá presentar un nuevo modelo 228 subsanando los errores o aportando la documentación requerida.

Artículo 6. Documentación a presentar junto con el modelo 228.

Existe obligación de acompañar el modelo 228 de una copia de los acuerdos por los que las entidades del grupo han optado por el régimen de consolidación fiscal.

No obstante, no se requerirá la citada documentación cuando la misma ya obre en poder de la Diputación Foral de Gipuzkoa con anterioridad, con motivo de la presentación de los modelos 036 o 60S,

Disposición transitoria. Plazo para comunicar el alta de entidades que apliquen por primera vez el régimen de consolidación fiscal en los periodos impositivos iniciados dentro del mes siguiente a la entrada en vigor de la presente Orden Foral.

Sin perjuicio de lo dispuesto en la letra a) del artículo 4 de esta Orden Foral, las entidades dominantes de los grupos consolidados que vayan a aplicar el régimen de consolidación fiscal por primera vez en un período impositivo que se inicie dentro del plazo de un mes desde la publicación de la presente Orden Foral, podrán presentar la comunicación de alta a que se refiere la letra a) del artículo 2 de esta Orden Foral hasta el 31 de enero de 2013.

Disposición final. Entrada en vigor y efectos.

La presente Orden Foral entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, y será de aplicación para comunicar las altas que se produzcan a partir del 1 de enero de 2013 y las variaciones en la composición del grupo fiscal que se produzcan a partir de su entrada en vigor.

San Sebastián, a 19 de diciembre de 2012.—La Diputada Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Helena Franco Ibarzabal.

(10650)

(11870)

